

Sekula iparra galtzen ez duen gizona

Arantxa Urretabizkaia

Zabalik, 1999-12-04.

Martin Ugaldere etxera batera sartzen dira, goizero, eguzki jaioberria eta itsasoa. Egongelara bideratzen gaitu eta bisitarien lekua eskaintzen digu. "Kontuz magnetofoiarekin", abisatzen du, "askotan kale egiten dute eta". Hori da kazetari zaharrak elkarrizketari buruz egiten duen ohar bakarra. Gero, bere ohizko lekuan jarririk, zai gelditzen da.

Atzera begiratzeko asmoa dugula esaten diogunean, martin berehala sartzen da jokuan. "Bai, gustatzen zait noizean behin atzera begiratzea, guztioi bezala. Eta atzera begira jartzen naizenean, gehienetan, gerra ikusten dut".

Gerra. Hamalau urte zituen Martinek gerra hasi zenean, Aita frontera doa eta ama, bi semeekin, Bilbora. Handik, anaia txikia Errusiara bidaltzen dute. Gerra bukaeran Frantzia egiten dute topo aita semeak. Aita Venezuelara doa eta Martin berriro Andoainen eta bakarrik dagoen amarengana itzultzen da.

Etixeratu bezain laister Tetuanera bidaltzen dute, soldadu. Hiru urte egin zituen han eta, etxera itzultzerakoan, familia sakabanaturik dago, ez da lanik ez lagunik aurkitzen.

Azkenik, 1947an, 26 urteko gizona eta ama Venezuelara abiatzen dira. han elkartzten dira berriro laurok eta han hasten dute bizitza berri bat.

"Sekula ez genuen berehala itzuliko ginenik espero izan. Bagenekien luzarorako egongo ginela Venezuelan".

Ameriketara abiatu baino lehen, Martinek bazekien zer egin nahi zuen: kazetari izan nahi zuen eta horretan hasi zen ia berehala. Gero, Chicagon, kazetari ikasketak egin zituen.

Ezkondu zen Anamarirekin, izan zituzten hiru seme-alaba, lortu zuen txukun baino hobekiago bizitzeko aukera ematen zion lana, hasi zen arrakastaz literatur lanetan, Euskal Herria eta haren arazo politikoak ahaztu gabe.

"Zaila izan zen etxeratzea"

"Francok bota ninduen Euskal Herritik eta nik argi nuen hura hil baino lehen itzuli behar nuela. Horixe agindu nion neure buruari eta agindutakoa bete egin nuen. Zer egin behar nuen, bestela, itzuli behar zela esan eta Venezuelan lasai gelditu? Ez, nik ez dut horretarako balio".

1969 itzuli zen Euskal Herrira, baina Errejimenak ez zion Martini familiarekin egoten utzi, Franco hil zen arte. "Hil zen Franco, azkenean. Eta handik urtebetera itzuli nintzen ni, behingoz. Ze gorrotoa zidaten, niri eta nireei. Egin zizkidaten kalteak eginak daude. Baina ez diot inori gorrotorik". "Txarra da gorrotoa, kalte gehiago egiten dio

gorrotatzen duenari gorrotatua denari baino. Ahazten ere jakin behar da. Kontu batzuk ahaztu egin behar dira bizi ahal izateko".

Hor, itzulerarekin batera, hasten da Martinen bizitzaren hirugarren atala. Hondarribia etxea erosi eta garai berriari aurre egiten dio. Ez arazorik gabe.

Politikan nahiz kulturgintzan lanean ari direnak ez diote harrera ona egiten. Ez omen zuten seriotan hartu. "Hau Ameriketan egon, han aberastu eta orain idazlea omen da". Kosta egin zitzaion onartua izatea".

"Zaila izan zen etxeratze hura, zaila niretzat eta familiarentzat".

Zaila izan da bizitza Martinentzat. "Bai, bide zaila egin dut, fede txarreko jendea ere izan dut aurrean, baina beti antzeman izan ditut. Halare, ez naiz kexatzen. Bizitza okerragoa izan duten asko dira, asko".

Itzulerarekin batera, politikak ere beste pisu bat hartzen du Martinen bizitzan. "Halabeharrez egin nuen nik politika. Baina ez dut sekula bilatu, ez da nire bidea izan. Eta Franco hil zenean, argi nuen hura bukatu zela niretzat. Horrela esan nien Alderdikoei".

Eleberri askotarako aitzakia biltzen duen bizitza horretan, halare, Martinek ez du bidea galdu. "Ez dut sekula Iparra galdu, gauza inportanteak argi izan ditudalako, nahikoa argi". Ipar hori zer edo zein den galdetzen diogunean, zalantzarik gabe erantzuten du: "Gizon bezala bizi, abertzale bezala, euskera defenditu. Fedeak ere lagundu dit. Kristau naiz eta hori beti izan zait lagungarri. Eta familia, noski. Gurasoak, emaztea eta seme-alabak".

Euskera dago, beraz, Iparraren Iparran. "Euskeraz bizi izan nintzen Andoainen eta Venezuelan, kazetari lana gaztelaniaz egiten banuen ere". Euskeraz bizi, bai, baina euskaraz idaztea beste kontu bat zen, batez ere batasunaren hastapen haietan.

"Hamar urte behar izan nituen euskara profesionalki erabiltzeko gauza izan ahal izateko. Hamar urte. Eta gero, ez dut ia erdaraz idatzi".

Martinen jubilazioa Jaurlearitzan lanean ari zela gertatu zen, baina horrek ez zuen gizona etxe zuloan sartu. 1990ean *Euskaldunon Egunkariaren* fundatzaileetako bat izango da. Fundatzaile eta bultzatzaile. "Dirua atera behar zen, aurpegia eman jendaurrean eta dirua bildu. Ni izan nintzen proiektu haren... aurpegi ofiziala. Eta konszienteki egin nuen hori".

Kazetari izan nahi zuen Martinek Andoaindik Venezuelara abiatu zenean. Kazetari izan zen herbestean eta euskarazko lehenengo egunkariaren fundatzaile. Zirkulua itzi zuen, beraz.

"Orain, nire burua idazle bezala ikusten dut, hori naiz edo hori izan nahi dut. Gaztetan, kazetari sentitzen nintzen eta hortik sartu nintzen literaturan. Orain, zahartzaroan, joan egin zaizkit garrantzi gutxiagoko gauzak. Fundamentalak bakarrik gorde ditut, funtsezkoak.

Eta funtsezko horien artean funtsezkoena, literatura da. Hortik ikusten du gaur Martinek mundua, literaturatik.

Eta ikusten duena ez zaio beti gustatzen. "Okerrena intolerantzia da. Intolerantzia, gorrotoa eta zintzotasunik eza, disimulua. Horiek ezin ditut eraman, ezta agresibidatea ere. Agresibidate gehiegi dago gure artean, gero eta gehiago".

Halere, goizero idazten duen, idazle honek aurkitu du bere bakea. "Ez dut ezeren beldurrik. Harrokeriarik gabe esaten dut, baina ez dut ezeren beldurrik, ez diot inori ezer zor".